

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 943

*AGINDUA, 2021eko otsailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez epea irekitzen baita merezimenduen egiaztagiria aurkezteko, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduretan, baita espezialitate berriak eskuratzekoan ere.*

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA) hautaketa-prozeduren deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoan sartzeko, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere. Deialdi horren 8. oinarriak eta I. eta II. eranskinak ezartzen dituzte lehiaketa-fasea arautzen duten baldintzak eta barematu beharreko merezimenduak.

Merezimenduak entregatzeko epeari dagokionez, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko uztailaren 29ko Aginduaren (2020ko abuztuaren 17ko EHAA) lehenengo f) apartatuak, hautaketa-prozeduretako epeei eta denbora-erreferentziei buruzkoak, aldatu egin zuen Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren 8.1 oinarriaren bigarren paragrafoan jasotakoa, COVID-19 birusak alarma-egoera deklaratzeko sortutako epe-etendurak eragindako egoerara egokitzeko izapideen eta faseen segida.

Azaldutakoa betez, epea irekitzen da kidegoetan sartzeko eta horra iristeko prozeduretan parte hartzen duten izangaiek merezimenduen egiaztagiria aurkezteko.

Beraz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Epea irekitzea 2021eko martxoaren 1etik 10era arte, biak barne, merezimenduen egiaztagiria aurkez ditzaten onartutako izangaiek eta baztertuta daudenek (baldin eta gora jotzeko errekurtsioa jarri badute eta ebatzi gabe badago). Merezimendu horiek Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren I. eta II. eranskinetan adierazitakoak dira; agindu horren bidez hautaketa-prozedurak deitu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoan sartzeko.

Bigarrena.– Adierazitako epean egiaztagiria aurkezteko, COVID-19 birusak eragindako salbuespenezko egoera kontuan hartuta, eta osasun-segurtasuna bermatzeko ezohiko neurriak hartu behar direnez, hala nola urruntze soziala lortzeko buruzkoak, pertsonak elkartzea edo haien arteko hurbiltasuna eragiten duten jarduerak saihestuz, honako neurri hauek hartzen dira:

Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbide hauetan aurkeztu beharko dira egiaztagiria:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Merezimenduak entregatzea».

edo

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> – «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» – «Lehiaketa-aldia».

«Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria. EPE 2020» egiaztagiria bete eta aurkeztu beharko da, bai eta egiaztagiria on-line aurkeztu ere, merezimenduak aurkezteko ezarritako aplikazio informatikoan zehaztuko diren jarraibideen arabera.

– Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak ziurtatzeko, Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan ez badaude (I. eranskinaren I.3 eta I.4 azpiatalak): Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria aurkeztuko da, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren oniritzirik gabe, zeina Hezkuntza Sailak zuzenean jasoko baitu. Halaber, lan-bizitza ere aurkeztu beharko da.

Gaur egun jardunean ez dauden ikastetxeei dagokionez, esperientzia egiaztatzen honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: interesdunaren zinpeko aitortzea, lan-kontratua eta lan-bizitza, Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzuaren oniritzirik gabe, zeina Hezkuntza Sailak zuzenean jasoko baitu.

– Argitalpenak aurkezteko (I. eranskinaren III.1 eta II. eranskinaren III.2.1 azpiatalak): papelean egindako liburu eta aldizkarien kasuan, honako hau aurkeztuko da: azalaren kopia, lehen 10 orrialdeak eta ISBN edo ISSN agertzen den orrialdea. Beharrezkoa izanez gero, argitalpen osoa aurkezteko eskatu ahal izango da, geroago.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, bai eta aipatutako Interneteko helbideetan ere.

Laugarrena.– Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 8a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.